

Erio bai zital ta atzpar gogor! Guk emen hizi nai biotzez maite doguzanakaz, eta arek ixilka daroaskuz Ta onek —berezkoa baita— odoletan biotza izten Oraindik zitalago dogu euskaltzaleokaz, gazterik illak baitira gure idazle ta olerkari geienak. Ona zerrenda argi ez makala geure ezagunakaz osotuta: Zubigar, Eltzo Arruti, Errenderi, Lizardi, Loramendi, Markiegi, Lau axeta, Tapia-Perurena, Manterola ta Gerrika-Etxebarrria karmeldar gazte biak, eta abar.

«Orixe» etzan ain gazte, atzo goizeko. 1858-XII-6'an Orexa'n jaioa genduan da. Ba-ebazan, beraz, berurteak. Lanerako, alan be, iñoi-zkorik argi ta gogo tsuen aurkitzen zan. An Zabalegi landetxe zoragarri, Donosti'tik urre, udabarritz egin neutson age rraldian onela iñostan: «Soiña dut. egia, makal sama baiña anima kementsu». Olerki-sorta bat, mistika gaiez, esku artean ebillen, baita pilosopi auzi batzuk eta «Jainkoaren Billa» liburu ederrari azken-ikutu emotea be.

Baiña, 1961'go uztaren 25'an, il baiño amalau egun lenago egin eustan idazkian au iñohan: «Ni osasune makal, sendagaillu barriakaitik edo. Bapere ez deu kot kemenik bearrerako. Etorriko ete iata, datorre illabete ortan «Jainkoaren billa» kopiatzez amaitzen dodan? Neke egiten iata kopiak ataratea». Ez da arri tzekoa, erio bai ebillen aren inguru, gosemin. Larori —atsegir yakona noski—, berak azkenez orraztu ta niri emotekotan zan, nik argitaratzeko. Ez ebarizan astirik dana amaitzeko, ots, kopiatzea.

Azken-urteotan guztiz mistikara emona egoan. Gaortaz ziran oraingo bere olerkiak be. Bein adierazit neutson: «Neuk egingo dautzut eun olerki oberena kaz txorta txiki bat!». Eta berak: «Ez, ori ez dut nahi bizi naizelarik; neu nabil, gaiñera, olako zerbaitsa osatzent; baiña denak nai ditut mistikoiak». Sail ortarako egndakoetariko batzuk argitara ditu OLERTI'k.

Igazitako dagonillaren 9'an aldatu eban Jaunak, BARNEMUINETAN bereziki onen goxo ta sakon akiri abestu eban Jaunak, bere atsegir dirdaitsura. Urrenengo atsaldez Añorga'ko eleizan egin ziran aren omeluzko illetak, jentetza and.a —apaiz, praille, erritanzainbat adiskide min— bertan zalarik.

Danok dakigunez, aren luma errezz, txairo, sakon tān erlantzez aberats genduan. Utsune andia itxi dausku euskal zelaian, nekez orniduko dana. Olerti, pilosop ta mistikagaiaik oso eder yakozan. Bikain litzake guztiontzat aren idazlan guztiak bilduma batzueta —olerti, mistika ta pilosopi-gaiak— argitara emotea Goian bego.

A. O.